# Aratusteetako koplak

Urtebete bat pasatu eta,
gatozkizue kantari
Arenaleko hondartzatikan
Bilbao hankaz gora jarri!

Mozorroturik dotore asko
ez jaun eta ez alkate
lege, eleizak, antzerakoak
bota ditzagun aparte.

**Dinbili danba, nos ha pillao**
**parroko jaunak, en pekau**
**en penitentzian edango dugu**
**jo ta ke “Agua de Bilbao”**

Orgia eta desenfrenua
betidanik ongarriak
urtean zehar, ahal den neurrian
eutsi behar dira biak

Aspaldidanik ikasi dogu
zein den, bai, gure fedea
dugun erreinu bakarra dela
eguneroko kalea.

**Dinbili danba, nos ha pillao**
**parroko jaunak, en pekau**
**en penitentzian edango dugu**
**jo ta ke “Agua de Bilbao”**

Nerbioiko ur garbien gainetik
Metroz “Gran Vía” azpitik
sorgin-haizeak ekarri gaitu
plaza honetara pozik.

Betikoak agertu ezkero
joan daitezen aguro
botila honen bits ederrakin
ez dira hemen seguro.

**Dinbili danba, nos ha pillao**
**parroko jaunak, en pekau**
**en penitentzian edango dugu**
**jo ta ke “Agua de Bilbao”**

Despeditzeko ordua da ta
eztarria da urratu
isil, isilik esan digute
behar garela agurtu.

konpartseroek bota ditugu
koplatxo hauek bai arin
besterik gabe, agur bero bat
Karnabaltxoak, on egin!

**Bilbo, 1985eko otsailaren 16an**

# Aratusteetako koplak

Urtebete bat pasatu eta,
gatozkizue kantari
Arenaleko hondartzatikan
Bilbao hankaz gora jarri!

Mozorroturik dotore asko
ez jaun eta ez alkate
lege, eleizak, antzerakoak
bota ditzagun aparte.

**Dinbili danba, nos ha pillao**
**parroko jaunak, en pekau**
**en penitentzian edango dugu**
**jo ta ke “Agua de Bilbao”**

Orgia eta desenfrenua
betidanik ongarriak
urtean zehar, ahal den neurrian
eutsi behar dira biak

Aspaldidanik ikasi dogu
zein den, bai, gure fedea
dugun erreinu bakarra dela
eguneroko kalea.

**Dinbili danba, nos ha pillao**
**parroko jaunak, en pekau**
**en penitentzian edango dugu**
**jo ta ke “Agua de Bilbao”**

Nerbioiko ur garbien gainetik
Metroz “Gran Vía” azpitik
sorgin-haizeak ekarri gaitu
plaza honetara pozik.

Betikoak agertu ezkero
joan daitezen aguro
botila honen bits ederrakin
ez dira hemen seguro.

**Dinbili danba, nos ha pillao**
**parroko jaunak, en pekau**
**en penitentzian edango dugu**
**jo ta ke “Agua de Bilbao”**

Despeditzeko ordua da ta
eztarria da urratu
isil, isilik esan digute
behar garela agurtu.

konpartseroek bota ditugu
koplatxo hauek bai arin
besterik gabe, agur bero bat
Karnabaltxoak, on egin!

**Bilbo, 1985eko otsailaren 16an**